BEZ Kudeaketa propioari dagokionez, foru-aldundien zerga-bilketak, 2008an zehar, kontsumo pribatuaren galdaldia nabaritu du, eta ekitaldiko abuztuan tasa negatibotan sartu da. Dena dela, 2007ko azkeneko zatian desazelerazio-zantzuak erakusten hasia zen atal hori. Tasa negatibo horiek mantendu eta are areagotu egin dira 2009ko hirugarren hiruhilekoan, non urte arteko aldakuntza % 29ren inguruan kokatzera iritsi baitzen, nahiz eta urteko azken zatian leundu egin zen, eta itxieran % -13,0ko tasa erakutsi zuen, aurreko ekitaldiko emaitza baino bakarrik hiru hamarren hobe.

En cuanto al IVA Gestión propia, la recaudación de las Diputaciones Forales, que ya en el último tramo de 2007 comenzó a mostrar síntomas de desaceleración, a lo largo de 2008 acusaba el frenazo del consumo privado, hasta entrar en el mes de agosto de ese ejercicio en tasas negativas que se han mantenido e incluso agudizado en el tercer trimestre de 2009, en el que su variación interanual se llegaba a situar en torno al -29%, si bien en el último tramo del año se suavizaba hasta mostrar al cierre con una tasa del -13,0%, sólo tres décimas mejor que el resultado del ejercicio anterior.

BEZ (Berezko kudeaketa) / IVA (Gestión Propia)

	Diru-bilketa Recaudación ooo€	Gehikuntza Incremento	% BPG nominala PIB nominal
1999	1.675.545	11,3%	8,1%
2000	1.750.892	4,5%	7,9%
2001	1.871.897	6,9%	5,5%
2002	1.891.457	1,0%	5,2%
2003	2.088.922	10,4%	6,5%
2004	2.404.733	15,1%	8,3%
2005	2.973.596	23,7%	7,5%
2006	3.464.922	16,5%	7,8%
2007	3.661.087	5,7%	7,6%
2008	3.173.284	-13,3%	3,0%
2009	3.759.294	-13,0%	-3,2%

KOADROA / CUADRO IV.79

Arabak, berriz, BEZ-Kudeaketa propioaren bidezko zerga-bilketa propioaren urte arteko igoera lortu du, barne-doiketa egin aurretik (igoera hori, gainera, % 26,6koa izan da). Lurralde historiko horrek baino ez du lortu horrelako igoera, urte-amaieran Estatuko Ogasunetik jaso zuen aparteko diru-sarrerari esker, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen ebazpena aplikatzeko. Izan ere, zerga-bilketa osoa gehitzeaz gain, atal horrek gutxitu ditu gehien itzulketak, 2008ko abenduaren aldean.

Gipuzkoari dagokionez, hango zerga-bilketa % -14,8ra iritsi da; izan ere, itzulketak zertxobait beheratu diren arren, diru-sarrerak ere atzeratu egin dira, eta portzentaje handiagoan, gainera.

Emaitzarik txarrena, azkenik, Bizkaian izan da, 2008ko abenduan baino % 19,8 gutxiago bildu baitu. Izan ere, diru-sarrerak lurralde historiko horretan beheratu dira gehien, eta hura da BEZagatik aurreko urtean baino gehiago itzuli duen bakarra, nahiz eta kopuru neurritsua izan (% 3,6), Estatuko Zerga Agentziari egin behar izan zaizkion ordainketek eraginda. Izan ere, Bizkaiko Foru Aldundiak haiei aurre egin behar izan die, Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen hainbat ebazpen betetzeko. Ordainketa horiek, gainera, BEZaren kuotei eragiten dieten heinean, zerga horren itzulketa gisa kontabilizatzen dira, kontabilitate aldetik.

Baliabideak banatzeko eta ekarpenak zehazteko 2/2007 Legean ezarritakoa eta

Es Álava el único Territorio Histórico que, gracias al ingreso extraordinario recibido a fines de año de la Hacienda estatal, en aplicación de la resolución de la Junta Arbitral del Concierto Económico, consigue antes del ajuste interno un aumento interanual de su recaudación neta por IVA Gestión propia, además del 26,6%, ya que no sólo incrementa su recaudación íntegra sino que además es el que más ha disminuido sus devoluciones respecto a diciembre-08.

En cuanto a Gipuzkoa se refiere, su recaudación registra un -14,8%, ya que a pesar que ha visto decrecer ligeramente las devoluciones, los ingresos también se han retraído y además en un mayor porcentaje.

Finalmente, en Bizkaia se registra el peor de los resultados, al recaudar un 19,8% menos que en diciembre de 2008, y es que en este Territorio Histórico es donde más disminuyen los ingresos y el único que ha devuelto por IVA más que en el ejercicio anterior, si bien se trata de un moderado 3,6% afectado sin duda por los pagos a la Agencia Tributaria a los que esta Diputación Foral ha debido hacer frente en cumplimiento de varias Resoluciones de la Junta Arbitral del Concierto Económico, pagos que en la medida que afecten a cuotas del IVA se computan contablemente como devoluciones de este impuesto.

En aplicación de lo previsto en la Ley 2/2007, de distribución de recursos y determinación

Euskadiko Finantza Publikoetarako Kontseiluak hartutako erabakiak aplikatze aldera, bestalde, hiru hilerik behin, BEZenik bildutakoaren lurralde arteko doiketa egiten da. Emaitzak, doiketa positiboa edo negatiboa izan den, bilketa oso gisa edo itzulitako zenbateko gisa kontabilizatu dira, hurrenez hurren. Hona hemen bilketaren emaitza:

	2008	2009
Araba / Alava	164.999.570	-5.530.897
Bizkaia	-394.423.176	-214.037.774
Gipuzkoa	229.423.606	219.568.671

Gauzak horrela, Euskadiko Autonomia Erkidegoari buruzko emaitza bateratuak (abenduaren 31n), urte arteko aldian, % -1,7 aldatzen diren itzulketa batzuk izan ditu, eta hori nahiko salbuespenezkotzat har daiteke, baldin eta aldagai horrek igoera handiak izaten dituela kontuan hartzen bada, harik eta aurreko ekitaldiko maila bikoiztu arte. Logikoa denez, gorakada horretan hainbat faktorek eragin dute, hala nola esportazioen indarrak eta inbertsio-jarduerak enpresa-proiektuetan izan duen bultzada handiagoak edo txikiagoak.

Bigarren aldiz zerga horren ibilbidean –eta, gainera, jarraian– jaitsiera izan da diru-sarrera osoetan, eta jaitsiera hori aurreko ekitaldikoa baino sakonagoa izan da, % -13,0ko tasa eskaintzen baitu, zerga-bilketa osoari dagokionez. Tasa horrek hiru hamarrenetan baino ez du hobetu aurreko ekitaldiko emaitza, baina lau puntu negatiboagoa izan zitekeen, urte-amaieran Estatuko Zerga Agentziatik etorritako aparteko diru-sarrera kontabilizatu izan ez balitz.

de las aportaciones, y de los acuerdos adoptados por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas, trimestralmente se ha practicado el ajuste interterritorial a la recaudación por IVA. Los importes resultantes se han contabilizado como recaudación íntegra o como devolución, según que el ajuste haya sido positivo o negativo respectivamente, con el resultado siguiente:

Así las cosas, el resultado consolidado para la Comunidad Autónoma de Euskadi a 31 de diciembre registra unas devoluciones que varían interanualmente en un -1,7%, lo que puede considerarse como bastante excepcional si se tiene en cuenta que habitualmente esta variable suele experimentar fuertes aumentos hasta incluso duplicar el nivel del ejercicio anterior, lógicamente incidida por factores tales como la fuerza de las exportaciones y el mayor o menor empuje de la actividad inversora en proyectos empresariales.

Por segunda vez en la trayectoria de este impuesto y, además de modo consecutivo, se sufre una caída de los ingresos íntegros, más profunda que la del pasado ejercicio, arrojando una tasa del -13,0% para la recaudación neta, tasa que mejora en sólo tres décimas el resultado del ejercicio anterior, y que podía haber sido cuatro puntos más negativa de no haberse contabilizado a fin de año el ingreso extraordinario proveniente de la Agencia Tributaria.

BALIO ERANTSIAREN ZERGA / IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA / EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN			
	2009	2008	% 09/08
Diru-bilketa osoa eta hondakinak Recaudación íntegra y residuos	4.600.825	5.046.705	-8,8
Itzulketak / Devoluciones	-1.841.531	-1.873.421	-1,7
Diru-bilketa likidoa / Recaudación líquida	2.759.294	3.173.284	-13,0

KOADROA / CUADRO IV.80

Horrek eten gogorra ekarri du BEZa 2003-2006 aldian izaten ari zen hedapen-ildo

Esto ha supuesto una brusca interrupción de la fuerte senda expansiva que estaba

sendoan; izan ere, urte arteko hazkundeak % 16ren gaintikoa izan da, EAEko BPG nominalaren hedapenaren dobletik gorakoa, hain zuzen ere. Izan ere, ordu arte zerga-sarreraren artean zerga hori zen osagairik dinamikoenetarikoa, eta gorabehera horrek, gainera, bat egiten zuen zeharkako zergak orduan izaten ari ziren hedapenarekin, barne-eskariaren indarrak bultzatuta, batetik, eta atxikipen-tauletan beherantz izan diren etengabeko aldaketen eraginez errenta eskuragarriak gora egin izanaren ondorioz, bestetik.

Beraz, 2009an, berriro ere behera egin du BEZaren bilketak. Beherapen horren lehenengo zantzuk 2007ko bigarren erdialdean antzeman ziren, eta baieztatu eta areagotu egin dira ondorengo bi ekitaldietan, non ekonomiaren eta kontsumo pribatuaren hazkunde-erritmoaren uzkurketa nabarmendu baitira, eta faktore horiek erabakigarriak dira zeharkako zergen bilketa-bilakaeran, oro har, eta BEZaren bilketa-bilakaeran, bereziki.

Izan ere, diru-sarrera gordinek sakondu egin dute aurreko ekitaldian jada izandako beherapenean, nahiz eta hori lehenengo aldiz gertatzen ari den zerga honen historian; hori dela eta, azken bi urteetako jaitsiera pilatua % 14 ingurukoa izan da, eta hori, jakina, hainbat aldagai ekonomikoren atzerapen-portaeraren isla baino ez da, hala nola kontsumo pribatuarena, etxebizitzaren salmentarena eta inportazioena.

Gainera, enpresa zergapekodunek egin dituzten eskarien orokortzeari erantzunez, foru-aldundiek 2009an BEZaren ordainketan luzamenduak izateko eman zituzten baimenek % 50ean gaintitzen dituzte aurreko ekitaldikoak, eta horrek bi puntutik gora igoarazi du zerga horrek ekitaldiaren itxieran izan duen urte arteko tasaren negatibotasuna.

Era berean, 2009ko zerga-bilketan ere eragina izan du enpresei eman zaien aukerak –BEZaren itzulketa hilean behin jasotzeko aukerak, alegia–, eragiketen izatasuna eta bolumena alde batera utzita, aukera horrek zerga hilean behin likidatzera behartzen baititu.

Eragina izan du zerga-bilketan, era berean, BEZaren zerga-baterakuntzako araubide berezi berria indarrean sartzeak. Araubide

mantenien el IVA en el período 2003/06, con un crecimiento medio interanual por encima del 16%, más que el doble de la expansión del PIB nominal vasco, lo que convertía a este impuesto en uno de los componentes más dinámicos de los ingresos tributarios, uniéndose así a la expansión general que estaba experimentando la imposición indirecta, impulsada por la fortaleza de la demanda interna y el aumento de la renta disponible por los continuos cambios a la baja de las tablas de retenciones.

Por lo tanto, en 2009 ha caído de nuevo la recaudación del IVA, cuyos primeros indicios ya se detectaban en la segunda mitad de 2007 y se han confirmado y agravado en los dos ejercicios siguientes, en los que se ha acusado la contracción del ritmo de crecimiento de la economía y del consumo privado, factores determinantes de la evolución recaudatoria de la imposición indirecta en general y del IVA en particular.

En efecto, los ingresos brutos han profundizado en la bajada ya registrada en el ejercicio anterior, lo que sucedía por primera vez en la historia de este impuesto, por lo que la caída acumulada en estos dos últimos años ronda el 14%, lo que no es sino un reflejo del comportamiento recesivo de variables económicas tales como el consumo privado, la venta de viviendas y las importaciones.

Además, en respuesta a la generalización de peticiones de las empresas contribuyentes, el importe de los aplazamientos en el pago del IVA concedidos por las Diputaciones Forales en 2009 supera en un 50% el del ejercicio precedente, lo que aumenta en más de dos puntos la negatividad de la tasa interanual de este impuesto al cierre del ejercicio.

Asimismo, la recaudación de 2009 se ha visto afectada con la opción dada a las empresas de recibir mensualmente la devolución del IVA con independencia de la naturaleza y volumen de las operaciones, opción que les obliga a liquidar mensualmente el impuesto.

También habrá incidido en la recaudación el régimen especial de consolidación fiscal del IVA, de aplicación voluntaria para las

berria borondatezko aplikaziokoa da erakunde-talde bat osatzen duten enpresentzat, baina araubide hori jada indarrean zegoen 2008ko urtarriletik, eta, hori dela eta, ez da aldarazten bilketaren homogeneotasuna.

Kupoaren Batzorde Mistoak onartutako akordioaren arabera, foru-aldundiek BEZaren doiketan (Zerga Agentziarekiko eragiketan) ondorioztatzen diren zenbatekoak hiru hilerik behin sartu eta kontabilizatu dituzte. Zenbateko horien guztizkoa beheratu egin da bosgarren urtez jarraian, nahiz eta oraingoan negatibotasunik altuena iritsi duen, askogatik gainera (% -29,6).

empresas que formen un grupo de entidades, pero este régimen ya estaba en vigor desde enero de 2008, por lo que no se altera la homogeneidad recaudatoria.

De acuerdo con el procedimiento aprobado por la Comisión Mixta de Cupo, las Diputaciones Forales han ingresado y contabilizado trimestralmente los importes resultantes en el Ajuste IVA con la Agencia Tributaria, cuyo total decrece por quinto año consecutivo, si bien en esta ocasión alcanza por mucho su más elevada negatividad, el -29,6%.

ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREKIN BEZ EGOKITZAPENA AJUSTE IVA CON LA ADMINISTRACIÓN DEL ESTADO			
	Inportazioak Importaciones	Berne eragiketak Op. Interiores	Guztira Total
2008ko Likidazioa / Liquidación 2008	28.109	20.933	49.042
2009ko urtarrila-martxoa / Enero-marzo 2009	91.403	118.833	210.236
2009ko apirila-ekaina / Abril-junio 2009	106.160	38.958	145.118
2009ko uztaila-iraila / Julio-septiembre 2009	101.432	7.209	108.641
2009ko urria-abendua / Octubre-diciembre 2009	103.641	152.233	255.874
GUZTIRA / TOTAL	430.745	338.166	768.911

KOADROA / CUADRO IV.81

Izan ere, 2005-2007 hirurtekoan, foru-aldundiek sartu duten BEZaren doiketa % -1,8 inguruan bilakatu da, urte arteko aldian, nahiz eta BEZaren bidezko estatu mailako zerga-bilketak ez dion utzi hazteari, baina Inportazioak ataleko tasa negatiboekin, atal horrek pisu erlatibo handiagoa baitu doiketaren kalkuluan.

2008ko itxieran, BEZaren doiketaren urteko arteko jaitsierak % -7,2 iritsi zuen; izan ere, kasu horretan, doiketaren kalkuluan esku hartzen duten osagai guztiek zenbaki gorriak izan zituzten: Inportazioak, Barne-eragiketak eta Nafarroako zerga-bilketa.

Azkenik, 2009ko abenduaren 31n, are gehiago sakondu da foru-aldundiek sartutako doiketaren beherapenean (aurreko urtean baino % 29,6 txikiagoa). Tasa horren inguruan Zerga Agentziak ikusi du nola beheratu den azaroan BEZaren bi ataletako bilketa, eta abendura estrapolatuz, laugarren hiruhilekoko doiketa kalkulatzeko oinarri gisa

En efecto, durante el trienio 2005/07 el Ajuste IVA ingresado por las Diputaciones Forales ha evolucionado interanualmente en torno al -1,8%, a pesar de que la recaudación estatal por IVA no ha dejado de crecer, pero con tasas negativas del apartado de Importaciones, con mayor peso relativo en el cálculo del Ajuste.

Al cierre de 2008 el descenso interanual del Ajuste IVA alcanzaba el -7,2%, y es que en esta ocasión todos los componentes que intervienen en su cálculo registraban números rojos: Importaciones, Operaciones interiores y recaudación de Navarra.

Finalmente, al 31 de diciembre de 2009 se profundiza aún más en la caída del Ajuste ingresado por las Diputaciones Forales, un 29,6% inferior al del ejercicio anterior, tasa en torno a la cual la Agencia Tributaria ha visto disminuir la recaudación de los dos apartados del IVA al mes de noviembre, que, extrapolada a diciembre, sirve de base para el

balio du.

Urtea ongi hasi zen, 2008ko ekitaldiari buruzko doiketaren likidazioak 49 milioi euroko zenbatekoa eskaini baitzuen, Euskal Autonomia Erkidegoaren aldekoa; 2007ko likidazioan, aldiz, zenbateko horren erdi ingurua edo ateratzen zen, Estatuko Administrazioak urte horietan jarraitu zuen kontabilizazio-erritmo desberdinaren ondorioz.

Aldiz, 2009ko urtarril-azaroa aldiari dagokionez, ondorioztatzen den doiketa aurreko ekitaldikoa baino askoz txikiagoa da, neurri handi batean zerga-bilketaren formalizazioan izan den erritmo txikiagoak eragina; baina, batik bat, estatu mailako zerga-bilketak jasan duen bilakaera arras negatiboaren ondorioz.

Horrela gertatzen da BEZ/Inportazioak atalarekin, % 33ko bilketa-galera izan baitu; BEZ/Barne-eragiketak atalean, berriz, nahiz eta enpresa handien portaera hobea daukan atal horrek, urte arteko jaitziera % 30eraino iritsi da. Tasa hori hamar puntu hobekituko litzateke, baldin eta hileko itzulketaren orokortzearen eraginak, luzamendu handiagoak eta itzulketen aurrerapena deskontatuko balira.

2009ko azaroan, Estatuko Ogasunak BEZaren bidez egindako zerga-bilketaren % 89 formalizatu du, hau da, horrek sarrera txikiago bat dakar foru-aldundientzat 2009ko amaieran, 65 milioi euro ingurukoa, hain zuzen ere.

4. Fabrikazioko Zerga Bereziak

Foru-aldundiek, 2009an, alkoholaren, hidrokarburoen, garagardoaren eta tabakoaren bidez 1.404 milioi euro jaso dituzte guztira, kudeaketa propioan, hau da, 20 milioi euro, aurreko urteko zerga-bilketaren azpitik, eta horrek % -1,4ko tasa negatiboa izan du zerga horien multzorako. Zerga horiek, beste urte batez, gora egin dute zerga-mailan, Europako Batzordearen aldetik maila hori igoarazteko egindako proposamenen haritik, estatu kide guztien artean prezioak bateratzea errazteko eta tabakoaren kontsumoa murrizteko asmoz.

cálculo correspondiente al cuarto trimestre.

Comenzaba bien el año al arrojar la liquidación del Ajuste para el ejercicio de 2008 un importe de 49 millones de euros a favor de la Comunidad Autónoma de Euskadi, mientras que en la liquidación de 2007 resultaba en torno a la mitad de ese importe, como consecuencia del distinto ritmo de contabilización seguido por la Administración del Estado en esos años.

Por el contrario, en cuanto al período enero/noviembre de 2009 se refiere, el ajuste resultante es muy inferior al del ejercicio anterior, en parte incidido por el menor ritmo en la formalización de la recaudación, pero básicamente como consecuencia de la evolución altamente negativa soportada por la recaudación estatal.

Así sucede con el IVA Importaciones, que registra una pérdida recaudatoria del 33%, mientras que en el IVA Operaciones interiores, que cuenta con un mejor comportamiento de las Grandes Empresas, el descenso interanual se sitúa en el 30%, tasa que mejoraría diez puntos si se descontasen los impactos de la generalización de la devolución mensual, los mayores aplazamientos y el adelanto de las devoluciones.

Al mes de noviembre-09 la Hacienda estatal ha formalizado el 89% de la recaudación realizada por IVA, lo que ha supuesto para el cierre 2009 de las Diputaciones Forales un menor ingreso próximo a los 65 millones de euros.

4. Impuestos Especiales de fabricación

En 2009 las Diputaciones Forales han ingresado en gestión propia por Alcohol, Hidrocarburos, Cerveza y Tabaco un total de 1.404 millones de euros, esto es, 20 millones de euros por debajo de la recaudación del año anterior, lo que representa una tasa del -1,4% para el conjunto de estos impuestos, de los que sólo los que gravan el consumo de hidrocarburos y de tabaco han visto elevar su fiscalidad, tal y como se propone desde la Comisión Europea, con el fin de facilitar la convergencia de precios entre los diferentes Estados miembros y de reducir su consumo.

2008an gertatu zen bezala, zerga-bilketa munta txikieneko zerga bereziak izan du portaera onena, garagardoaren kontsumoa zergapetzen duenak (zerga horren bilketa % 7,8ko igoera izan du).

Tabakoaren gaineko Zerga Berezitik datorren zerga-bilketa ere igo egin da 2009an, baina oso modu neurritsuan, eta ekitaldia bost hamarren gainetik bukatu da, aurreko urtearen aldean. Izan ere, nahiz eta zergapetze-tasak % 10 igo diren batez beste 2009an, zerga-bilketa kontsumoaren jaitsiera mailakatua jasaten ari da, honako hauen ondorioz: tabakoaren aurkako legeak gogortzea; prezioen igoera, eta zigarreten kontsumoa tabako xehera aldatu izana (itxura denez, kontsumoa tabako mota horretara aldatu da, aukera merkeagoa delako eta zerga-karga txikiagoa jasaten duelako).

Hidrokarburoen gaineko Zerga Bereziaren bilketako urte arteko tasa, 2009an, ez da irten zenbaki gorrietatik, eta ekitaldia % -2,0 batekin amaitu du, azken hilabetetako zerga-tasen igoerarekin zerbait hobetu izan ondoren: % 7,5 inguru gasolinetarako, eta % 10etik gora, gasolioetarako. Igoera hori ekainaren 13an sartu zen indarrean.

Azkenik, alkohola zergapetzen duen zergak izan du tasa negatiborik altuena 2009an zehar, zenbait kasutan bi digitukoa, eta gorabehera gehien ere zerga horrek izan ditu, eta % -6,7ra iritsi da abenduaren 31n.

Azken emaitza hau da: 1997an foru-aldundiak zerga hauek kudeatzen hasi zirenetik, guztizko zerga-bilketa beheratu egin da bigarren aldiz eta jarraian, 2009ko itxieran.

Zerga horiek guztiak, Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziarekin eta Zenbait Hidrokarburoen Txikizkako Salmentaren gaineko Zergarekin batera, hiru hilerik behin doitzen dira foru-aldundien artean, 2009ko koefiziente horizontalen arabera, eta aldundiek zerga bakoitzaren kudeaketa propioaren bitartez bildutako zenbatekoaren barruan ateratzen diren doiketak kontabilizatzen dituzte, bilketa oso edo itzulketa moduan, honako emaitza honekin:

Al igual que sucedía en 2008, el impuesto especial de menor entidad recaudatoria, el que grava el consumo de cerveza, es el que mejor se ha comportado, con un aumento de la recaudación del 7,8%.

También la recaudación proveniente del Impuesto Especial sobre el Tabaco ha aumentado en 2009, pero muy moderadamente, hasta cerrar el ejercicio cinco décimas por encima del año anterior y es que a pesar de que los tipos de gravamen se han elevado una media del 10% en 2009, la recaudación está acusando el descenso paulatino del consumo, derivado del endurecimiento de las leyes antitabaco, la subida de los precios y el posible traslado del consumo de cigarrillos a la picadura de liar, como alternativa más barata y que soporta menor carga tributaria.

La tasa interanual recaudatoria del Impuesto Especial sobre Hidrocarburos, en 2009 no ha salido de los números rojos, cerrando el ejercicio con un -2,0%, después de haber mejorado en los últimos meses con la subida de los tipos impositivos, en torno a un 7,5% para las gasolinas y en más de un 10% para el gasóleo, entrada en vigor el 13 de junio.

Finalmente, el impuesto que grava el alcohol es el que ha presentado a lo largo de 2009 una tasa negativa más elevada, en ocasiones de dos dígitos, y con mayores altibajos, situándose al 31 de diciembre en un -6,7%.

El resultado final es que desde que en 1997 las Diputaciones Forales comenzaron a gestionar estos impuestos, su recaudación total por segunda vez y de modo consecutivo decrece al cierre de 2009.

Todos estos impuestos, junto con el Impuesto Especial sobre Electricidad y el Impuesto sobre Ventas Minoristas Determinados Hidrocarburos, han sido ajustados trimestralmente según los coeficientes horizontales de 2009 entre las Diputaciones Forales, que contabilizan estos ajustes dentro de la recaudación por gestión propia de cada impuesto, como recaudación íntegra o como devolución, con el resultado siguiente:

Fabrikazio zerga bereziak / 2009 /Impuestos Especiales de Fabricación

∞ €

	ARABA ALAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EUSKAL AE C.A. EUSKADI
Berezko kudeaketa / Gestión propia				
Alkoh. Erat.k eta Bitartekoak / Alc., Deriv. e Intern.	1.231	261	12.507	13.999
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	129.634	900.671	-885	1.029.420
Tabako-motak / Labores del Tabaco	42.572	143.281	169.559	355.412
Garagardoa / Cerveza	373	1.052	4.159	5.584
Elektrizitatea / Electricidad	12.470	31.973	26.893	71.336
Zenbait Hidrok.ren txikiz. salment.g/ zerga l. s/ Ventas Minoristas determinados Hidrocarburos	11.028	18.143	22.265	51.436
Berezko kudeaketa, Guztira / Total Gestión propia	197.308	1.095.381	234.498	1.527.187
Egokitzapenak / Ajustes				
apirila / abril	20.073	-89.698	69.625	
uztaila / julio	16.259	-83.218	66.959	
urria / octubre	16.614	-86.628	70.014	
abendua / diciembre	7.993	-73.160	65.167	
Egokitzapenak Guztira / Total Ajustes	60.939	-332.704	271.765	
GUZTIRA / TOTAL	258.247	762.677	506.263	1.527.187
Portzentajejzko egitura Distribución porcentual	16,91%	49,94%	33,15%	

KOADROA / CUADRO IV.82

Era berean, Estatuko Administrazioarekiko doiketak hiru hileri behin aplikatu dira, eta 114,5 milioi euroko zenbateko negatiboa ateratzen da, eta 2009an indarrean zeuden koefiziente horizontalen arabera banatu da foru-aldundien artean:

Asimismo, los Ajustes con la Administración del Estado se han practicado trimestralmente, resultando un importe negativo de 114,5 millones de euros, repartido entre las Diputaciones Forales según los coeficientes horizontales vigentes en 2009:

Fabrikazio zerga bereziak / 2009 /Impuestos Especiales de Fabricación

∞ €

	Alkohola Alcohol	Hidrokarb. Hidrocarb.	Tabakoa Tabaco	Garagard. Cerveza	Guztira Total
2008ko Likidazioa / Liquidación 2008	11.841	-72.904	16.777	2.291	-41.995
2009ko urtarrila-martxoa / Enero-marzo 2009	8.892	-30.062	3.944	2.319	-14.907
2009ko apirila-ekaina / Abril-junio 2009	9.964	-41.932	8.916	3.169	-19.883
2009ko uztaila-iraila / Julio-septiembre 2009	8.399	-47.197	18.168	4.244	-16.386
2009ko urria-abendua / Octubre-diciembre 2009	7.004	-45.422	12.547	4.541	-21.330
GUZTIRA / TOTAL	46.100	-237.517	60.352	16.564	-114.501

KOADROA / CUADRO IV.83

Emaitza hori hobekuntza neurritsua da, 2008an kontabilizatutako -123,5 euroen aldean, eta Tabakoaren gaineko Zerga Bereziari buruzko doiketaren ondorio baino ez da. Izan ere, atal hori bakarrik igo da urte arteko aldian, eta, gainera, oso modu bizkorrean, batik bat Estatuko Ogasunetik izan den desfase larriaren ondorioz. 2007ko

El resultado supone una moderada mejora respecto a los -123,5 millones de euros contabilizados en 2008, derivada exclusivamente del Ajuste relativo al Impuesto Especial sobre el Tabaco, único que sube interanualmente, y además muy intensamente, como consecuencia básicamente del fuerte desfase por parte de

eta 2008ko zerga-bilketaren formalizazioan gertatu zen desfase horrek, hain zuzen ere, emaitza oso desberdinak eragin zituen ekitaldi horietako likidazioetan, -18 milioi eurotik 17 milioi eurora pasa baitziren emaitza horiek.

Zerga horren doiketa, gainera, igo egingo da; izan ere, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren kontsumo-indizea, bai Estatuko Zerga Agentziaren kontabilizazio-erritmoa, aurreko ekitaldian baino zertxobait handiagoak izan ziren azaroan.

2009ko estatu mailako zerga-bilketari dagokionez, azaroan, formalizazio-maila aldatu egin da (bederatzi puntu inguru aldatu ere) aurreko urteko hilabete beretan lortua zen kontabilizaziotik, eta zerga horien guztien bilketa-bilakaera negatiboari lotuta, foru-aldundientzat, 2008ko itxieran, negatibotasun handiagoa eskaini du aldagai horrek, 15 milioi euroren ingurukoa, hain zuzen ere.

Ekitaldi osoan zehar gertatu denez, azaroan, Estatuko Ogasunak zerga horietatik, Tabakoaren gaineko Zerga Berezia alde batera utzita, aurreko urtean baino gutxiago jaso du; horrela, bada, batez beste % -2,0ko tasara iritsi da, hau da, foru-aldundiek beren kudeaketan lortutakoa baino apur bat negatiboagoa izan da berrir ere.

5. Bestelako zergak

Gainerako zergei dagokienez, guztizko zerga-bilketaren % 7,0 hartzen baitute, % -27,95 jaitsi da zerga-bilketa bestelako zerga horietan, ekitaldiaren itxieran. Portzentaje hori % -18,5era jaitsi da batez beste, Ondarearen gaineko Zerga alde batera uzten bada, haren zerga-bilketa ez baita homogeneoa, aurreko urtekoaren aldean.

la Hacienda estatal en la formalización de la recaudación al mes de noviembre de 2007 y 2008, lo que ocasionó unos resultados muy dispares en las liquidaciones de los citados ejercicios, que pasaron de -18 millones de euros a 17 millones de euros.

Además, el ajuste de este tributo se ha visto aumentado por el hecho de que tanto el índice de consumo de la Comunidad Autónoma de Euskadi, como el ritmo de contabilización de la Agencia Tributaria resultaron al mes de noviembre ligeramente superiores a los del ejercicio anterior.

En cuanto a la recaudación estatal en 2009, al mes de noviembre el grado de formalización difiere en torno a nueve puntos de la contabilización que se había alcanzado en el mismo mes del año anterior, lo que unido a la negativa evolución recaudatoria de todos estos impuestos, arroja para las Diputaciones Forales al cierre de 2008 una mayor negatividad próxima a los 15 millones de euros.

Tal y como ha sucedido a lo largo de todo el ejercicio, al mes de noviembre la Hacienda estatal ha recaudado por estos impuestos, con la excepción del Impuesto Especial sobre el Tabaco, menos que en el año anterior, por lo que en su conjunto llega a una tasa media del -2,0%, que de nuevo vuelve a ser un poco más negativa que la lograda por las Diputaciones Forales en su gestión propia.

5. Otros tributos

En cuanto al resto de los tributos, que representan el 7,0% de la recaudación total, al cierre del ejercicio han visto caer su recaudación en un -27,95, porcentaje que baja hasta el -18,5% de media si se prescinde del Impuesto sobre el Patrimonio, cuya recaudación no es homogénea con la del ejercicio anterior.

BESTELAKO ZERGAK / OTROS TRIBUTOS

	Diru-bilketa Recaudación 000€	Gehikuntza Incremento
1999	626.337	14,0%
2000	757.765	21,0%
2001	680.975	-10,1%
2002	729.188	7,1%
2003	773.915	6,1%
2004	837.463	8,2%
2005	946.865	13,1%
2006	1.076.722	13,7%
2007	1.240.077	15,2%
2008	1.044.575	-15,8%
2009	753.242	-18,5%

KOADROA / CUADRO IV.84

Hona hemen ezaugarriarik aipagarrienak:

2009ko amaieran, Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergak modu bortitzean eten zuen azkeneko urteetan jarraitu den ildo hedakorra, Bizkaiaren pisua nozitu baitu. Izan ere, herrialde horren zerga-bilketa osoak aurreko urtean kontabilizatutako diru-sarreraren % 60 hartzen baitu, eta horrek, Euskal Autonomia Erkidego osoari buruz, % 39,4ko urte arteko jaitsiera eskaini du.

Zerga horren guztizko bilketa (Estatuan bizi ez diren pertsona fisiko eta juridikoek Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean eskuratutako errenta zergapetzen baitu zerga horrek) 114 milioi eurora iristen da. Kopuru horretatik, ia dena batik bat finantza-erakundeek egindako atxikipen eta konturako ordainketei dagokie, eta kopuru askoz txikiago bat, egoiliar ez direnen urteko autoliquidazioei.

Era berean, zerga horretan sartzen dira ondasun higiezin batzuen katastro-balioaren gainean erortzen den 100ko 3ko zergapetze berezitik datozen diru-sarrerak (higiezin horien jabeak ez-egoiliarrek direnean aplikatzen da), zerga horren zenbatekoak guztizko bilduaren zati txiki bat baino ez baitu hartzen.

Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergak % 2,1ko jaitsierarekin ixten du ekitaldia, eta emaitza oso desberdin batekin iristen da, foru-aldundi bakoitzari buruz.

Éstas son las notas más relevantes:

Al cierre de 2009, el Impuesto sobre la Renta No Residentes ha interrumpido bruscamente la excelente senda expansiva mantenida en los últimos años, al acusar el peso de Bizkaia cuya recaudación íntegra sólo supone el 60% de los ingresos contabilizados el año anterior, lo que para el conjunto de la Comunidad Autónoma de Euskadi arroja un descenso interanual del 39,4%.

La recaudación total de este impuesto, que grava la renta obtenida en territorio vasco por las personas físicas y entidades no residentes en el Estado, asciende a 114 millones de euros, de los que la casi totalidad corresponde a las retenciones y pagos a cuenta realizados básicamente por entidades financieras y una cantidad muy inferior a las autoliquidaciones anuales de los no residentes.

Asimismo, en este impuesto se incluyen los ingresos provenientes del gravamen especial del 3 por 100 que recae sobre el valor catastral de los bienes inmuebles cuyos propietarios sean no residentes, cuyo importe total supone una mínima parte del total recaudado.

El Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones cierra el ejercicio con un descenso del 2,1%, al que se llega con un resultado muy dispar para cada una de las Diputaciones Forales.

Ondarearen gaineko Zergaren bilketa bateratua ia oso-osorik Gipuzkoari dagokio, lurralde horretan baino ez baitzuen indarrean jarraitzen 2008ko Ondarearen aitorpenak. Hori dela eta, 2009ko itxieran zerga horrexek jasan zuen zerga itunduen ataleko zerga-bilketako jaitsierarik handiena, aurreko ekitaldian hiru foru-aldundiek kontabilizatutako diru-sarrerekin konparatuz gero, zeren eta Arabak zein Bizkaiak, biek ala biek, aurreko ekitaldietan sortarazitako zenbatekoak bakarrik kontabilizatu baitituzte 2009an.

Hortaz, zerga horren bidezko zerga-bilketa Gipuzkoako Lurralde Historikoan baino ez da homogeneoa urte arteko aldian, herrialde horretan % 18tik gertu dagoen jaitsiera izan baitu, batik bat Espainiako Burtsaren portaeraren ondorioz. Burtsa horrek, 2008an, bere historiako jaitsierarik handiena, %39a, jasan zuen, eta oso balore gutxi libratu ziren zenbaki gorrietatik.

Berririo jaitsi dira hiru lurralde historikoetan – bigarren urtez jarraian jaitsi ere– Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren bidezko bilketak, % -17,7 inguru, eta hor eragina izan du bigarren eskuko etxebizitzaren salmentetan izan den desazelerazio larriak (zergaren osagai oso garrantzitsua baita), bai eta etxebizitzaren prezioan izan den jaitsierak ere.

2009an jarraitu egin du Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergaren bidezko bilketaren jaitsiera larriak hiru foru-aldundietan, nahiz eta azken hilabeteetan gutxiagotu egin duen ibilbide negatiboa, kontuan izanik, matrikulazioek hamabost hilabeteetan jaitsiera izan ondoren, nabaritu egin dela zuzeneko deskontuen eragin positiboa (2.000 euroren deskontua automobil ez oso kutsatzaileak erosten dituzten partikularrentzat, 2000 E Plan berriaren bidez).

Azken emaitza % 24,5eko bilketa-jaitsiera izan da; baina, batik bat, 2008 urtea bezalako urte bat, non beherapena are handiago izan baitzen, historiako ekitaldirik txarrena izan baitzen automobilgintza-sektoreko salmentetarako eta Vive Planak hasierako baldintzetan izan zuen eraginkortasun eskasaren aurrean.

Ekitaldiaren erdialdetik aurrera, bilketa-

La recaudación consolidada del Impuesto sobre Patrimonio pertenece en su casi totalidad a Gipuzkoa, único Territorio Histórico en el que continuaba en vigor la declaración del Patrimonio-08. De ahí que al cierre de 2009 este impuesto soporta la mayor caída recaudatoria del panel de tributos concertados al compararla con los ingresos contabilizados por las tres Diputaciones Forales en el ejercicio anterior, ya que tanto en Álava como en Bizkaia este impuesto en 2009 sólo ha contabilizado importes devengados en ejercicios anteriores.

Así pues, sólo en el Territorio Histórico de Gipuzkoa es homogénea interanualmente la recaudación por este impuesto, donde registra una caída próxima al 18%, como consecuencia básicamente del comportamiento de la bolsa española, que en 2008 soportaba la mayor caída de su historia, el 39%, con muy pocos valores que se libraban de los números rojos.

Vuelven a caer por segundo año consecutivo en los tres Territorios Históricos las recaudaciones por el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, en torno al -17,7%, incidido por la fuerte desaceleración en las ventas de viviendas de segunda mano, componente muy importante del impuesto, así como por el descenso en el precio de las viviendas.

En 2009 ha continuado el fuerte descenso recaudatorio por Impuesto Especial sobre Determinados Medios de Transporte en las tres Diputaciones Forales, si bien en los últimos meses ha aminorado su marcha negativa, habida cuenta que tras quince meses de descenso de las matriculaciones, se ha dejado notar la influencia positiva de los descuentos directos de hasta 2.000 euros a los particulares que compran coches poco contaminantes a través del nuevo Plan 2000 E.

El resultado final ha sido un descenso recaudatorio del 24,5%, pero sobre un año como 2008 en el que la caída fue aún mayor, al haber sido el peor ejercicio de la historia para las ventas del sector automovilístico y ante la nula eficacia del Plan Vive en sus condiciones iniciales.

A partir del ecuador del ejercicio ha suavizado

jaitsiera moteldu du Elektrizitatearen gaineko Zerga Bereziak, tarifa-igoeraren eragina eta urte horretan hileko fakturaziora pasa izana nabaritu baititu, eta urtea % -1,6ko tasa batekin itxi du, jarduera ekonomiko txikiagoak eragindako kontsumo txikiagoaren ondorioz. Gorabehera hori antzeman zen jada 2008ko azkeneko zatian, eta, 2009ko abenduan, 16 hilabete jaitsiera pilatu ditu, eta hori ez dator bat ekonomiaren bilakaerari buruzko adierazle adierazgarri honek hamarkadako gainerako hiletan izandako urteko hazkunde etengabekoekin.

Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmentaren gaineko Zergak ere bere datuak hobetu ditu urteko azkeneko zatian, eta abenduaren 31ra hiru puntuko murrizketa batekin bakarrik iritsi da. Bilketan izan den murrizketa hori lurraldeka banatu da, 2009ko koefiziente horizontalen arabera.

Zertxobait negatiboagoa da Aseguruen Primen gaineko Zergak iristen duen emaitzak. Izan ere, hiru lurralde historikoetan jaitsi ondoren, zerga-bilketa bateratu txikiago batekin ixten du urtea (% 5,5ekoa).

Jokoaren tasaren zerga-bilketa berriro jaitsi da, seigarren urtez jarraian, eta kasu honetan % -7,2 jaitsi da, tasa horren osagai nagusiak (hau da, Makinak) bilakaera positiboa izan baitu hiru lurralde historikoetan, nahiz eta beste bi osagaietan (Bingoak eta Kasinoak) jaitsiera larriak izan diren.

c. Zerga-bilketaren bilakaera

Lehenengo Ekonomia Ituna 1981eko maiatzean onartu zen, eta 20 urteko indarraldia zuen. 2002an, 12/2002 Legeak gaur egun indarrean dagoen Ekonomia Ituna onartu zuen.

Beraz, 1981etik aurrera, foru-aldundiek beren zerga arloko eskumenak egikaritu zituzten, eta 1982an lehen aldiz bildu zituzten zergak urte oso batean. Zerga itunduetatik bildutako diru-kopurua, 1997an zerga itundu berriak aintzat hartuta, hamasei aldiz handiagoa egin da 1982tik 2008ra bitartean, eta datu horrek argi adierazten du zer dimentsio kuantitatibo duen Ekonomia Itunak.

su caída recaudatoria el Impuesto Especial sobre Electricidad, al acusar el impacto de la subida de tarifas y del paso a facturación mensual en este año, y cierra el ejercicio con una tasa del -1,6%, derivado del menor consumo por la menor actividad económica, circunstancia que ya se dejaba notar en el último tramo de 2008 y que a diciembre de 2009 ha encadenado 16 meses de descensos, lo que contrasta con los continuos crecimientos anuales registrados durante el resto de la década por este significativo indicador de la evolución de la economía.

También el Impuesto Especial sobre Ventas Minoristas Determinados Hidrocarburos ha mejorado en el último tramo del año sus datos, llegando al 31 de diciembre con una reducción de sólo tres puntos en su recaudación, que ha sido distribuida territorialmente según los coeficientes horizontales de 2009.

Un poco más negativo es el resultado al que llega el Impuesto sobre Primas de Seguros, que después de descender en los tres Territorios Históricos, cierra el año con una menor recaudación consolidada del 5,5%.

Finalmente, la recaudación de la Tasa de Juego ha vuelto a caer por sexto año consecutivo, en esta ocasión con un porcentaje del -7,2%, después de evolucionar positivamente en los tres Territorios Históricos su componente más importante, Máquinas, pero con fuertes descensos tanto en Bingo como en Casinos.


c. Evolución de la recaudación

El primer Concierto Económico se aprobó en mayo de 1981, con una vigencia de 20 años. En 2002, la Ley 12/2002 aprueba el Concierto Económico vigente en la actualidad.

Por tanto, a partir de 1981, las Diputaciones Forales ejercen sus competencias tributarias y 1982 fue el primer año en el que recaudaron durante un año completo. La recaudación por tributos concertados, una vez incluidos los nuevos tributos concertados en 1997, se ha multiplicado por más de dieciséis entre 1982 y 2008, lo que da una idea de la significación cuantitativa del Concierto Económico.

ITUNDUTAKO ZERGENGATIKO DIRU-BILKETAREN BILAKAERA
EVOLUCIÓN DE LA RECAUDACIÓN POR TRIBUTOS CONCERTADOS 1982-2009

000,000 €



GRAFIKOA / GRÁFICO IV.32

Denbora-bitarte horretan, bildutako diru-kopuruak gora egin du etengabe, salbuespen bakarrarekin; izan ere, 1994an, urtetik urterako bilakaera negatiboa izan zen, ehuneko txiki batean. 2008. urtean, ordea, behera egin du, eta % 6,8ko beherakada izan du bilketan, aurreko urtearen aldean. Zerga-bilketaren jaitsiera ia % 16 sakondu da 2009. urtean.

Ondorengo lerroetan aipatuko dira zergen bilketak aldi horretan izan dituen bilakaeraren mugarrak.

Bi hauek izan dira, funtsean, diru-bilketa horren bilakaeraren eragile nagusiak: zerga-araudian egin diren arau-aldaketak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera ekonomikoaren bilakaera.

Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiak, 1975-1985 aldian, geldialdi bat izan zuen. Hala, barne-produktu gordinaren urtetik urterako hazkunde metatua zertxobait negatiboa zen, eta behera egin zuen, nabarmen, enplegu-kopuruak, batik bat, industria-sektorean. 1985etik aurrera, susperraldi bat izan zen, industria-jarduerak hazkunde handia izan zuten eta eraikuntza-sektoreko hazkunde-tasek gora egin zuten, nabarmen. Horrekin batera, aipatzekoak dira

Durante este período la recaudación no había cesado de incrementarse, salvo en 1994 cuando por vez primera se registró una evolución interanual ligeramente negativa, hasta el año 2008 con una bajada recaudatoria del 6,8% respecto al año anterior, profundizándose la caída de la recaudación casi un 16% en el año 2009.

Varios son los hitos que han incidido en la recaudación tributaria a lo largo del período y que a continuación se comentan.

La evolución de la recaudación durante todos estos años es consecuencia fundamentalmente de los cambios normativos con incidencia tributaria y de la evolución de la situación económica en la Comunidad Autónoma de Euskadi.

En el período 1975-1985 la economía vasca vivió una década de estancamiento, con un crecimiento acumulativo anual del PIB ligeramente negativo y un fuerte descenso en el número de empleos, particularmente en el sector industrial. A partir de 1985 comenzó la recuperación con un espectacular crecimiento industrial y unas elevadas tasas de crecimiento en el sector de la construcción, acompañados de un activo papel impulsor del sector público, así como de un espectacular

sektore publikoak prozesu hori guztia bultzatzeko egin zuen ahalegina, eta kontsumoak nahiz inbertsioek izandako igoera handiak. Susperraldi horren gailurrak 1988ko eta 1989ko ekitaldietan ukitu ziren, eta, hortik aurrera, hazkunde ekonomikoaren erritmoak behera egin zuen, harik eta 1992ko ekitaldira iritsi arte.

1992ko ekitaldia amaitzean, atzeraldi-prozesu bati ekin zitzaion, eta 1993ko ekitaldiaren erdialdean hauteman ziren, gogorren, atzeraldi horren ondorioak. 1994ko ekitaldian amaitu zen krisia, eta susperraldia sendotzen ari zela egiaztatu zen. Hazkunde ekonomikokoak izan ziren 1995. eta 1996. urteak, esportazio-datuek erakutsitako emaitza onek bultzatuta. Egoerak hobera egin zuen 1997an, eta 1998an lortu ziren 90eko hamarkadako emaitzarik onenak. Esportazioen hazkunde izugarria izan zen urte horietan Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomiaren motorra, magnitude makroekonomikoek balantze saneatua zutelarik.

Ekonomia-hedapeneko etapa luze baten ondoren, mende berriaren hasieran mantsotu egin zen ekonomiaren hazkunde-erritmoa. Halaber, nazioartean ziurgabetasuna eta ezegonkortasun politikoa nagusitu zirelarik, geldialdi baten zantzuak hauteman ziren Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomian. Testuinguru horretan, euroa jarri zen indarrean eta inflazioak arazoak sortu zituen, baina, hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoak inguruko herrialdeek lortutakoak baino emaitza hobeak izan zituen, eta enplegua sortu zuen.

